

OSTIRALA, 2025eko EKAINAREN 27a

San Pedroko festak

PASAI SANPEDRO

• OARSO BIDASOKO •

HITZA

Une txiki askoko festak

**Atzo hasi ziren San Pedroko festak.
Bertakoak eta bisitariak une
txiki asko izango dituzte gozagarri
datozen egunetan • 23-26**

PASAIKO ITSAS ARRANTZA - Blas de Lezo LHII



GORA SANPEDROAK!

HASTAPENeko, ERDI ETA GOI ZIKLOAK
NABIGAZIOA - MAKINAK - URPEKARITZA

Marinos kalea, 2. 20110 Pasaia. Tel.: 943 40 40 05
blasdelezo@pasaiaeskola.net - www.pasaiaeskola.net



Inude eta Artzainek dantzan jarriko dute San Pedro

MIKEL DEL VAL GARCIA

Asteburuan dantza protagonista izango da San Pedron, Inude eta Artzainen desfileek dantzan jarriko baitutuzte barrutiko txoko eta bazter guztiak. Bihar (larunbata) haurrak izango dira protagonista. Igandean, aldiz, San Pedro Egunean, helduen konpartsa arduratuko da San Pedro alaitzeaz. Bi desfileak 12:00etan irtengo dira. Hau-

rrena gimnasiotik abiatuko da, eta Torreatzen geldialdia egin ondoren, frontoian bukatuko dute herri dantzaldia. Helduak Pablo Enea kaletik hasiko dira, eta barrutia zeharkatu ondoren, frontoian bukatuko dute ibilbidea. Aitziber Zurutuza haurren konpartsan eta Edurne Txintxurreta helduenean buru-belarri ari dira asteburuko zitak prestatzen, eta gogotsu daude desfilea egin eta San Pedro dantzan jartzeko.

Lehen desfilea, aurrez aipatu bezala, haurrena izango da. Aurtengo dantzal-

diak berritasun nabarmen bat izango duela azaldu du Zurutuzak, San Pedro Egunean izan ordez, festetako larunbatean izango delako. Jai batzordean hartutako erabakietako bat izan zen helduen desfileak beti festetako igandean izan behar zuela. Hori dela eta, haurrena larunbatera aurreratu dutela baietsi du Zurutuzak. Hortaz, aurtengoa ez da San Pedro Egunean izango, ohi bezala, baizik eta festetako larunbatean.

Haurren desfilean hamasei dantzari bikote eta 32 pertsonaia aterako dira. Horiei, gainera, danbor joleak eta txaranga gehituko zaizkie, San Pedro musika doinuez ere betetzeko. Pertsonaiak Haur Hezkuntzako haurrak izango dira. Dantzariak, aldiz, Lehen Hezkuntzakoak dira. Zurutuzak adierazi du haien helburua dela haurrek disfrutatzea eta egun horren protagonista izatea.

Igandean helduen konpartsa arduratuko da San Pedro girotzeaz. Helduen desfilean 29 bikote arituko dira dantzan. Haurren desfilearen antzera, dantzariak danbor joleak eta pertso-



Pasaia bizi, San Pedrok piztu!

Astelehenetan:
9:00-13:00 / 15:00-19:00
Asteartetik ostegunera:
9:00-20:00
Ostiraletan: 9:00-15:00

Fernández - Valderrama Egaña
HORTZ KLINIKA
www.fernandezvalderramaegana.com
info@fernandezvalderramaegana.com

Tel.: 943 52 41 61.
Gure Zumardia 24, behea.
PASAI ANTZO

Gora San Pedroak!



OARSO ELEKTRIZITATEA S.L.

943 25 91 79
electricidadoarso@gmail.com
kblelektrizitatea.eus

**Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!
Aupa San pedro!**






naiak ere izango dituzte bidelagun. Pertsonaiak, ohi bezala, aurren 50 urte bete edo beteko dituzten sanpedrotarrak izango direla aurreratu du Txintxurretak.

Ibilbide luzeko tradizioa

Inude eta Artzainen San Pedroko desfileek sona eta tradizio handia dutela adierazi dute bi sustatzaileek. Txintxurretak jakinarazi du duela urte batzuk San Pedroko festen liburu bat argitaratu zutela, eta bertan jaso zen barrutiko Inude eta Artzainen lehen desfilea 1927an egin zela. Ia mendea bete da lehen desfile hartatik, eta, egun, tinko jarraitzen du. Ia ehun urte horietan gorabeherak izan direla nabarmendu du Zurutuzak, eta hainbat urtez konpartsak ez zuten San Pedroko kaleetan barrena desfilatu. Gehigarri batekin berreskuratu egin zutela baie-

tsi du Zurutuzak. Gehigarri hori haurren desfilearen sorrera izan zen, eta eraketa horretan Margari Portabalesen figura berebizikoa izan zela adierazi du egungo antolatzaileak. Desfile xume bat izatetik asko handitu dela goratu du Zurutuzak, Portabalesen hasitako bideari esker. Haurrenak ibilbide laburragoa badu ere, konpartsa hori herrian «sustraitzen» ari dela ziur da egungo antolatzailea, eta horren adibide da helduen konpartsa kide askok haurrenetik egin dutela jauzi.

Desfileek agerian utzi dute ibilbide luzeko tradizioa duen jardueraren bat dela San Pedron Artzain eta Inudeena. Txintxurretak, esaterako, txikitatik bizi izan ditu, eta aitortu du «oso polita» dela parte hartzea eta dantzatzea. Helduen sustatzaileak zehaztu du konpartsek kolorea ematen diotela herriari, betiko tradizioa bizirik mantenduz. ■



**EGITARAU
OSO
HEMEN**

labur.eus.oarsoagenda


**lazko helduen Inude eta Artzainen
desfilean atera ziren parte hartzaile
guztiak. HITZA**



**EROSKI
city**

**GORA
SAN PEDROAK!**

Herriko plaza, 8.
Pasai San Pedro
Tel.: 943 39 38 12



San Pedrok eta Antxok indarrak neurtuko dituzte



Antxok eta San Pedrok desafioa egin zuten maiatzaren 24an. HITZA

MIKEL DEL VAL GARCIA

Iaz irekitako bideari jarraituta, sanpedrotarrek herri kirolen desafioa egingo dute aurtengo festetan, Trapaia Gazte Taldeak antolatuta. Iaz, Donibaneren aurka neurtu zituzten indarrak moreek, baina aurten arrosak taldea osatzeko gai izan ez direnez,

antxotarren kontra arituko direla aurreratu du Haizea Ibargarai Trapaiaiko kideak. Maiatzaren 24an, Antxoko Basari Elkartearen egunean, sanpedrotarrak Antxon izan ziren lehian, eta bihar (larunbata) itzulerako desafioa egingo dute bi barrutiek San Pedroko frontoian, 17:00etatik aurrera eta Kitadelpare txarangak girotuta.

Talde bakoitzak zortzi partaide

izango ditu, launa gizon eta emakumez osatutakoak. Desafioan herri kirol probak eta jolasak egingo dituztela jakinarazi du Ibargarai, eta, esaterako, honakoetan murgilduko dira sanpedrotarrak eta antxotarrak: lokotxak, trontza, soka tira, barrena, txingak edota kutxa lasterketa.

Trapaiaiko kideak argi du mota honetako probak antolatzearen helburua dela herrian giroa sortzea, jendearen parte hartzea bultzatzea eta beste herri eta barrutiekin harremanak egitea. Izan ere, desafioaren ondoren, afari herrikoia izango da San Pedron, eta antxotarrak afaltzera gonbidatu dituzte.

Iazko desafioan, Donibaneren kontra jokaturakoan, jendeak «oso-oso ondo» pasa zutela baietsi du Ibargarai, eta proba horiek San Pedrori ekartzea ideia ona iruditu zitzaion, jendeari gustatzen baitzaizkio. Herritarrek bihar izango dute herri kirolez eta barrutien arteko lehiak gozatzeko aukera. ■

**INDEPENDENTZIA
SOZIALISMOA
FEMINISMOA**

@antxetasanpedro

zure taxia!

Taxi Jaizkibel

Donibane. Antxo.
San Pedro. Trintxerpe. Lezo

943.39.14.14

PORTUKO PILOTUAK

AUPA SAN PEDRO!

San Pedro kalea, 32
Pasai San Pedro
943 35 15 34
www.pasajespilot.com